

Hasi da barne eztabaidaren kontaketa

BATERAGUNE auzia ere bere barne lehia erabiltzea erabaki du gaur egun ezker abertzalean nagusitasuna duen sektoreak, egunotan Auzitegi Nazionalen epaitua izan den horrek hain zuzen. Otegi inoiz baino argiago eta ozenago aldarrikatu du sektore horren eta ETaren artean dagoen leizea. Otegiaren ahotik ikasi du iritziz publikoak Bateragune Ekineko egitura bat zela. Ekinek eta ETak posible ikusten zutela metaketa soberanista eta jardun armatua bateratzea; Otegi, Rafa Diez eta Rufi Etxeberriaren taldeak ez.

Bi sektore horiek badituzte hainbat desberdintasun giltzarri diren gaitan, borroka armatua, lurralde egituraketa edota indar metaketa soberanista esate baterako. Eta horien artean esanguratsuen borroka armatuarena da, HB eta ETaren baitan azken 30 urteotan arazo ugari ekarri duena. ENAMen etengabekoa izanda borroka armatuarekiko eztabaida, eta horren ondorioz baztertuak edo aldundiak ere ugariak izan dira. 90eko hamarkadaren hasieran, adibidez, Iñaki Esnaola HBko zuzendaritzatik egotzia izan zen gisa bereko barne lehia batean. Eta Lizarra-Garaziko porrotaren ondoren, borroka armatuaren aurkako jarrera izan zen Patxi Zabaletak gidatutako Aralaren katalizatzaile nagusi.

Borroka moldeen tira-bira horretan beti irabazi izan du lerro ofizialak, hau da, unean uneko zuzendaritzak, baita horietan Otegi, Etxeberria edo Diez bera egon direnean ere. Hala izan da beti Loiolako porrotaren ondorengora arte. Hori izan zen ezker abertzalearen egungo eztabaidaren inflexio puntua, eta porrot haren bihotzerrean egosi zen Otegiaren sektorearen garaipen historikoa.

Urratsez urrats ehundu den garaipena da eta, antza, komeni da



Hasi da barne eztabaidaren kontaketa.

kontatzen hastea. Bateraguneko auzipetuak eta lekukoak hasi dira hainbat pasarte aletzen eta, besteak beste, joan den igandean Gara-k ere eskaini du bere ikuspuntua, Iñaki Altunak sinatutako artikulua medio.

2009an ezker abertzalearen barne eztabaida eman zenetik gaurdaino, debatea irabazi duen sektoreak etengabe taularatu du bere indarra: jende erreferentzialarekin egindako prentsaurreko jendetsuak, gertuko hedabideen sostengua, Gernikako Ituna, Brian Currinen nazioarteko taldea, Sortu, EA eta Alternatibarekiko akordioak... eta, azkenik, Bildu eta maiatzaren 22ko indar agerpena.

Bistan da nor den garaile eta zertara behartu duen ETA. Baina nola daude une honetan ezker abertzalearen barruko indar harremanak? Argi dago Bateraguneko auzipetuentzat juridikoki giltzarri dela beraiek zertan aritu diren azaltzea. Hari nagusia ezaguna zen, baina xehetasunak oso lagungarri

dira fiskaltzaren akusazioak hankaz gora jarri eta epaiketaren emaitza ondorio posible bakarrera eramateko: absoltziora.

Oraingoz bederen, argi dago ETak ezker abertzalearen gehiengoak erabakitakoari men egitea erabaki duela. Su-etenean jarraitzea eta *zerga iraultzailea*-ren etena oso adierazgarriak dira, azken hau erabakigarria akaso. Kale borrokaren desagerpena ere esanguratsua da oso. Orduan, zertan geratu dira sektore galtzaileak? Zatiketa erabakia erabat saihestu ote da? Eta bi hipotesi bederen luza daitezke: bat, dena bideratua dago, ez dago zatiketa arriskurik eta, beraz, hasi daitezke gertatutakoaren kontaketa egiten eta historia finkatzen; bi, oraindik bada lehia maila bat eta, beraz, arrisku bat, eta epaiketa hau ere lehia horretarako beste tresna bat da. Logikak eta gertaeren analisiak lehen hipotesia indartzen dute, baina epaiketaren emaitzak eta ondorenak ere emango dituzte argibide gehiago.